



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

2019-2020 ikasturtea

Euskal emakume itzultzaile aitzindariak (1804tik 1970eko hamarkadara arte)

Egilea: Ainhoa Salaberria Garmendia

Tutorea: Isabel Etxeberria Ramirez

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

LABURPENA

Linda Whitek dioen moduan, euskal literatura eremu maskulinoztat hartu izan da luzaroan. Hala izateagatik, euskal literaturako emakume idazleak periferian kokatu izan dira beti. Are presentzia marjinalagoa izan dute, ordea, historian zehar egondako euskal emakume itzultzaileek. Azken horiek euskal literaturan izandako lekuari buruzko lanik ez denez oraindik plazaratu, euskal emakume itzultzaile aitzindarien zerrenda bat osatzeko asmoa izan dugu Gradu Amaierako Lan honetan. Halere, guztiak aztertzea ezinezkoa izan zaigunez, XIX. mende hasierako lehen euskal andrazko itzultzailearen lanetik, 1970eko hamarkadara bitarte literatura euskaratutako emakumeak izan ditugu aztergai.

Gure helburua lortzeko bidea ez denez samurra izan, zenbait iturritara jo behar izan dugu: gaiari buruzko aditu batzuk argitaratutako lanetara, garaiko aldizkarietara, EIZIEren argitalpenetara eta azken urteetan sortutako datu-baseetara: Armiarmaren *Literaturaren Zubitegia*, *Literatur Aldizkariaren Gordailua*, *Euskarari ekarriak* eta EIZIEren *Nor da Nor* izan ditugu bilaketako ardatz, eta ikerlaneko makulu.

Horrela, han-hemenka jasotako izenak bildu, eta aztertutako garaian itzultzen jardundako sei emakumeren izenak batu ditugu. Honako zerrenda honetan laburbil ditzakegu, beraz, euskal emakume itzultzaile aitzindarien gure genealogia proposameneko protagonistak: Bizenta Antonia Mogel, Julene Azpeitia, Tene Mujika, Maria Dolores Agirre, Miren Etxabe eta Maritxu Urreta. Haien datu biografikoak emango ditugu lehenik, literatur ibilbideari helduko diogu gero, eta itzulpenen inguruan mintzatuko gara azkenik.

Bukatzeko, azkeneko atalean, itzultzaile guztiak lotzen dituzten ondorio orokorrak ateratzen saiatuko gara. Horretarako, euskaratzaileen profila zehaztuko dugu batetik, eta uste baino antzekotasun gehiago dituztela ohartu; itzulpenen inguruko azterketa laburra egingo dugu bestetik: generoa, jatorrizko hizkuntza eta argitalpen lekua nahiz garaia zehaztuko ditugu.

Gradu Amaierako Lan honek, beraz, ikuspegi teorikotik 1970eko hamarkadara arte egon diren euskal emakume itzultzaile aitzindariak aztertzea eta ikusaraztea du xede. Baina, era berean, hausnarketarako parada ere eskaintzen digu, topatu ahal izan dugun emakumezko itzultzaileen kopuru urriak ez daukalako garai bereko gizonezko itzultzaileen kopuruarekin zerikusirik. Hortaz, lan honekin begi bistan geratzen da berriro, beste hainbat ofiziotan bezala, literatur itzulpenean ere gizonezkoak izan direla gehiago nabarmena.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. METODOLOGIA.....	3
3. ITZULTZAILE AITZINDARIAK.....	5
3.1. Bizenta Antonia Mogel Elgezabal (1782-1845).....	5
3.2. Julene Azpeitia Gomez (1888-1980)	8
3.3. Robustiana Mujika Egaña «Tene» (1888-1981).....	10
3.4. Maria Dolores Agirre Aizpuru (1903-1997)	12
3.5. Miren Etxabe Aldai «Lau Uxo» (1903- 1993)	14
3.6. Maritxu Urreta Zulaika (1915-2018)	16
4. ONDORIOAK.....	19
5. BIBLIOGRAFIA	26

1. SARRERA

Jakina da emakumezko zenbait euskaratzen eta itzulpenak argitaratzen aritu direla historian zehar. Halere, ez dugu ezagutzen ahaleginik euskal emakumezko itzultzaile aitzindariak batzen dituenik. Gradu Amaierako Lan honen helburua, beraz, lan bakar batean han-hemenka aipatutako emakumezko itzultzaileak biltzea, elkarren ondoan zerrendatzea, eta lehenengoz genealogia osatu bat plazaratzea da, eta, bide batez, haien arteko lotura eta ekarpen literarioaren nondik norakoak aztertuz, andrazko horien egoeraren erretratu bat ere egitea.

Lan honi 1970eko hamarkadan jarri diogu muga, data horretatik aitzinako itzulpenak aurreko garaietakoak ez bezalako beharrei erantzuten baitie. 1960ko hamarkada bukaeran euskara batua finkatzeko emandako urrats garrantzitsuek, 1979an onartutako Gernikako Estatutuak eta 1982ko Euskararen Legeak aldaketa handiak eragin zituzten euskal itzulpengintzan. Euskararen normalizaziorako bidean, administrazioa, irakaskuntza eta komunikabideak euskaldundu ziren. Horrekin batera, diktadura osteko askatasun giroak bultzatuta, euskararen aldeko jarrera baikorra eta sutsua hedatu zen: ikastolak, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze eskolak, literatur aldizkariak, zentsurarik gabe euskaraz argitara zezaketen argialetxeen sorrerak eta abar ugaritu egin ziren. Hori dela eta, itzulpen-lana esponentzialki handitu, eta lan eskerga horri erantzun ahal izateko, itzulpenaren inguruko elkarteak, erakundeak eta itzultzaileak profesionalizatzeko prestakuntza ugaltu, eta honakoak sortu ziren: 1980an Martuteneko Itzultzaile Eskola; 1984an *Senex*, itzulpengintzari buruzko euskarazko aldizkari bakarra; 1987an Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE); 1989an HAE Eren barruan Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO); 1990ean Literatura Unibertsala bilduma. Hori dela eta, Ibarluzeak dioenez (2018: 220-221) 1970eko hamarkadak eman zion hasiera itzulpengintzaren aro garaikideari, itzulpena euskararen normalizaziorako tresna izatera igaro zelako. Aro horretan sortu zen egun lanean diharduen emakumezko itzultzaileen belaunaldi berria: Koro Navarro eta Irene Aldasoro tarteko. Lan honek, ordea, 1970eko hamarkadara arte literatur lanen bat euskaratutako emakumezko itzultzaileen genealogia proposamen bat biltzen du.

Gradu Amaierako Lan hau aukeratzeko arrazoi eta, aldi berean, oztopo nagusia euskal itzulpengintzaren historiaren inguruko azterketa eskasia da. Ikerketa urritasun horri

irtenbide bat eman, eta Graduan landu gabeko emakumezko itzultzaileak ikusarazteko nahiak bultzatu gaitu lan hau egitera.

Nolanahi ere, emakume eta etorkizuneko itzultzaile gisa, lan honek gure historiari buruzko ezagutza aberasteko abagunea eskaini digu, baita euskal itzulpengintzari ekarpen txiki bat egitekoa ere. Gaiari gehiago sakontzea, eta itzulpen bakoitzari buruzko analisia egitea gustatuko litzaigukeen arren, Gradu Amaierako Lanari dagozkion mugak behartuta, lan honen esparrutik at geratzea hobetsi dugu. Interesgarria litzateke, ordea, etorkizunean hutsune horiek osatzea.

Lau ataletan banatu dugu lana: mamian bete-betean sartu aurretik, lanaren testuinguruaren eta zergatiaren berri ematen duen sarrera daukagu lehenik. Metodologia deitu diogunak osatzen du bigarrena, euskarara itzuli duten emakumezkoak identifikatzeko prozesua zein izan den zehazten duena. Hirugarrenean, itzultzaile bakoitzaren testuinguru biografikoa, izandako literatur ibilbidea eta itzulpenen ezaugarrien zertzelada bi ematen ditugu. Bukatzeko, ondorioek emango diote amaiera lan honi. Hala, laugarren eta azken atalean, ikerlanetik ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu.

2. METODOLOGIA

Lanaren zailtasun nagusia 1970eko hamarkadara bitarte euskarara itzuli duten emakumezkoak topatzea izan da. Aztertu beharreko garaia zehaztutakoan, lau pausotan heldu diogu itzultzaileen zerrenda osatzeko ikerketa lanari.

Lehenik eta behin, zenbait adituk emakumezko idazleek euskal literaturan izandako lekuaren inguruan argitaratutako lanetara jo dugu, litekeena baita itzultzen aritu diren gehienek idazle ere jardun izana: Nerea Azurmendiren *Emakume idazleak euskal literaturan* (1987) artikulua, Linda Whiteren *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century* (1996) tesia, eta Amaia Alvarez Uriaren *Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian* (2005) artikulua izan ditugu ardatz, eta zehaztutako garaiko emakumezko idazleak zerrendatzearekin batera, ikerketa horien bidez tartean zer edo zer euskaratu zuten emakumeak ere bazirela jakin dugu.

Bigarrenik, lehen pausotan zerrendatutako emakumez gain, garai hartan emakume idazle gehiago ba al zegoen ziurtatzeko, azken urteotan sortutako datu-baseak kontsultatu ditugu: Armiamaren *Literaturaren Zubitegia* eta *Literatur Aldizkarien Gordailua* izan ditugu aztergai. Lehenengoan, emakumezkoen izen guztiak bildu ditugu, gero, horietatik nork itzuli duten jakiteko; bigarrenean, 1970era arteko hamarkadetan argitaratutako aldizkariak arakatu ditugu, hau da, *Gernika*, *Egan*, *Euzko-Gogoa*, *Olerti* eta *Igela*, eta zorionez, *Gernikan* ez beste guztietan, Armiamak aldizkari bakoitzean parte-hartutako euskaratzaileen izenak jasotzen dituenaz, itzulpenak egindako bi emakumerekin egin dugu topo.

Hirugarrenik, aurreko informazio guztia osatzeko eta izen berriren bat aurkitzeko asmoz, azken urteotan sortutako beste datu-base bi miatu ditugu: Armiamaren *Euskarari ekarriak* eta EIZIEren *Nor da Nor*. Nahiko prozedura antzekoa jarraitu dugu bietan: lehenengoan, datu-baseko autore guztiak banan-banan aztertu, eta haien literatur lanak nork itzuli dituen zehaztu dugu; bigarrenean, ordea, bilaketa egiterakoan xede hizkuntza euskara ipini, eta agertutako 399 itzultzaileetatik gure ikerlanerako baldintzak betetzen dituztenak (1970eko hamarkadara arteko urteetan itzulpenen bat argitaratutako emakumezkoak) bakarrik hartu ditugu kontuan.

Bukatzeko, zerrenda osatzeko azken iturri gisa, EIZIEren honako argitalpenetara jo dugu: *Itzultzaile Aitzindariak* eta *Itzulpen Antologiak*. Lehenengoan ez dugu emakume

itzultzailerik topatu; bigarrenari esker, ordea, aurretik gure zerrendara gehitutako itzultzaile biren izenak berretsi ahal izan ditugu.

Hala, han-hemenka aipatutako izenak bildu, eta xehe-xehe aztertutako iturri guztiei esker lortu dugu ahalik eta zerrenda fidagarriena. Jarraian banan-banan aztertuko ditugun arren, azkenean sei izan dira, bata bestearen atzetik jarrita, zehaztutako garaira arteko emakumezko itzultzaileen genealogia osatzen dutenak. Zerikusirik ez, noski, garai bereko gizonezko itzultzaileen kopuruarekin. Kontsultatutako iturrietan topatutako asko, ordea, ezizenak ziren, eta jakina denez, ezizenen atzean ezin identitate zehatzik topatu. Honako lan hau, beraz, genealogia proposamen bat besterik ez da, gure intentzio onenarekin eta osasun krisiak ezarritako mugen pean egina. Baina, litekeena da Gradu Amaierako Lan honetan biltzen ez diren beste zenbait andrazkok ere 1970eko hamarkadara arte literatura euskaratu izana.

3. ITZULTZAILE AITZINDARIAK

3.1. Bizenta Antonia Mogel Elgezabal (1782-1845)

Bizenta Antonia Mogel Elgezabal Azkoitian sortu zen 1782ko ekainaren 6an, aita bertako mediku zela. Bizentak urtebete zuela aita hil, eta anaia Juan Jose eta biak Markinara lekualdatu ziren osaba Juan Antonio apaiz idazlearengana. Markinan igaro zuten, beraz, anaia-arrebek haurtzaroa. Hori dela eta, osabaren altzoan hazi eta hezi zen Bizenta, eta osabak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta latinez irakurtzen eta idazten irakatsi zion.

Zera dio Bizentak berak:

«Zortzi urte nituenean ikusirik nere neba edo anaia ikasten asi zala gure osabarekin latinezko izkerea, jarri zitzaidan barruan ikasi bear nuela nik ere. Ala, buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, ta zigor zaurigarriaren beldurrik ez nuela, jolasez bezela, irten nuen nere asmoarekin». (Mogel, 1804: 10)

1817an, Eleuterio Basozabal bilbotarrarekin ezkondu zen, eta Abandoko Erripa kalean bizi. Idazten, itzultzen eta sendabelarrekin begiko gaixoak sendatzen aritu zen bertan. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko irakasle ere izan zen. Azkenik, alargun eta seme-alabarik gabe hil zen 1854ko ekainaren 29an, Abandon bertan, 71 urte zituela.

1804an argitaratu zuen Mogelek *Ipui Onac* liburua, eta, hortaz, bera da ezagutzen dugun lehenengo euskal emakume idazlea. Nerea Azurmendik (1997: 41) dioen moduan, «Vicenta Moguel aprovechó con decisión y naturalidad las oportunidades que se le brindaron en un periodo en el que las mujeres permanecieron en la oscuridad». Osaba sona handiko idazlea eta apaiza zuen, *Peru Abarka* lanaren egilea; anaia ere idazlea, eta senarra inprenta baten jabea. Horrez gain, ezohiko heziketa jaso zuen, oro har, emakumeen % 15 bakarrik alfabetatua zen garaian. Berandu ezkondu, amatasunari uko egin, eta, emakumeek idaztea kaltegarria zelako ustea zabaldua zegoen garaian, Bizenta bere izenarekin argitaratzen ausartu zen.

Villasante da garai hartan emakume idazle izatearen ezohikotasuna aipatzen duenetako bat, eta hala nabarmentzen du:

«En efecto, bien merece destacarse la figura de esta mujer humanista y escritora en un tiempo en que inútilmente se buscará en nuestro país otras figuras de su sexo que alcancen altura semejante». (Villasante, 1979: 251)

Horregatik guztiagatik, Mitxelenaren esanetan (Olaziregi: 2003: 205) «emakume ezohiki argia» izan zen, eta Olaziregiren arabera (2003: 219), garaiko emakumeei jarritako oztopoak gainditu eta euskaraz idatzi zuen lehen emakumea ez ezik, «euskal literatur tradizio androzentrikoan pitzadura bat ireki zuen lehenengo emakumea» dugu Bizenta Mogel.

Oparoa da Bizentak euskal itzulpengintzari egindako ekarpena: 1804an kaleratutako *Ipui Onac* alegia liburua, 1820an itzultitako Luis Borbon Toledoko artzapezpikuaren gutuna, *Modo de ayudar a bien morir* liburuaren itzulpena, eta Bizkaiko Aldundian itzultzaile aritu izana. Itzulpenez gain, bertso-paperak eta gabon-kantak ere ontzen ibili zen.

22 urterekin argitaratutako obra nagusian Esoporen berrogeita hamar alegia ekarri zituen hitz lauz euskarara, eta gipuzkeraz egokitu euskal baserri girora, bizkaierazko zenbait ukiturekin. Tartean osabak neurtitzetan itzultitako zortzi alegiak eta zenbait hitzen gaztelaniazko ordaina ematen duten bi hiztegitxok ere osatzen dute kristau irakasbide morala helburu duen liburua.

Ez dago batere argi Bizentak zein sorburu-hizkuntzatik itzuli zuen. Altzibarren (1982: 465) aburuz, Juan Antonio osabak ordurako bizkaieraz itzultitako alegiak gipuzkeraz eman zituen. Beldarrainek (2010: 128), ordea, berak egindako ikerketaren bidez ondorioztatzen du *Isopete* izen generikoaz deitutako gazteleraizko itzulpenen bat izan zela Bizentaren benetako iturria.

Osabaren zuzendaritzapean alegiak itzultzen ibili ondoren, 1804an argitaratu zuen 114 orrialdeko *Ipui Onac* liburua, Donostiako Undiano liburugilearen inprimategian. Izugarritzko harrera ona izan zuen lanak, eta horren erakusle dira XIX. eta XX. mendeetan izandako argitalpen guztiak, 1880-1912 bitartean behin eta berriz berrargitaratu baita zatika aldizkarietan. 1880an, Bilboko *Beti Bat* aldizkariak argitaratu zituen Bizentaren alegiak. Azkueren *Euskalzale* astekaria 1899ko abuztuaren 3an hasi zen argitaratzen, eta hamahiru ipuin behintzat argitaratu zituen. Osorik ere behin baino gehiagotan argitaratu izan da: batetik, *Euskal Esnaleak* liburu berezi batean (Donostia, 1912), Txomin Agirrerren hitzaurrearekin Martin, Mena y C argitaletxean; bestetik, Auspoa liburu bildumak (Zarautz, 1963), J. San Martinen hitzaurrearekin; horrez gain, 1991n, Euskal Editoreen Elkarteak berrargitaratu, eta 2016an eLiburutegiak digitalizatu zuen; azkenik, Armiamaren *Klasikoen Gordailua* eta *Literaturaren Zubitegia* txokoetan ere topa dezakegu mintzagai

dugun liburua. Bukatzeko, Bizentak itzulitako alegia batzuk Manterolaren *Cancionero Vasco* (1877-1880) delakoan ere berrargitaratu ziren.

Bizenta batez ere *Ipui onac* (1804) lanagatik ezaguna den arren, bestelako testuak idazten, itzultzen eta orrazten ere ibili zen.

Ezkondu eta hurrengo urtean, 1818an, Bilbora joan zen bizitzera senarrarekin, eta bertan, bertso-paperak eta gabon-kantak idazteari ekin zion, aitagarreba inprimatzaile izateak bidea erraztu baitzion. Halere, polemika ugari sortu da gabon-kanten egiletzaren inguruan, 1819ko *Gabonetaco cantia Bizkaitar guztientzat* izeneko kantuan soilik eman baitzuen aditzera bera izan zela autorea: «euskaldun emakume batek ateria 1819. urtian Abandoko elexatian» (Altzibar, 2008: 26). Xabier Altzibarren iritziz, agian Bizenta ez zen gabon-kantak izenpetzen ausartu, agiri ofizialen itzultzaile zelako, eta bere gabon-kantak, gatazken eta erregimen aldakorren aldian onduak, politika asmokoak zirelako (2008: 26). Aipatutako gabon-kanta karlisten joerakoa izan arren, 1820an Konstituzioaren aldekoak nagusitu, eta Fernando VII.a erregearen martxoaren 10eko adierazpen bat euskaratu zuen Bizentak, Don Luis de Borbon Toledoko artzapezpikuaren sarrera batekin. *Carta Pastoral del Primado de las Españas* izenburua zuen, hain zuzen ere, Bizentak euskaratutako Espainiako Gotzainburuaren Artzai idazkiak. Honakoa zioen bukaeran:

«Traducida del Romance al Bascuence, por Doña Vicenta de Moguel». (Kaltzakorta, 1992: 6)

Bilbon bizi zen bitartean itzultzaile jardun zuen, eta ziurra ez den arren, E. Delmasen (Altzibar, 1990: 301) arabera, litekeena da Bizkaiko Aldundian gutun eta agiri ofizialak itzultzen aritu izana, 1820-1833 bitartean behintzat, garai hartakoak baitira Luis Borbon Toledoko artzapezpikuaren gutuna (1820), baita honakoa ere:

«Bizkaiko Aldundiaren gutunik ez da ageri itzulita, 1817-1825 bitartean bederen. Baina aurkitu dut bat, "Bilbon, Cemendijaren 28 garrenian, 1833" datatua, "Vizcaico erritar armadunac" izenburuduna, Juan Modesto de la Mota, Pedro Pascual Uhagon eta Mariano de Egiak sinatua. Euskara modua eta baita grafiak ere kontutan direla, Bizentak itzulia delako hipotesia ez da baztertzekoa». (Altzibar, 1990: 304)

Horrez gain, Fr. Mateo Zabalak dioenez, (Altzibar, 1990: 303) Bizentak *Modo de ayudar a bien morir* liburua ere itzuli zuen, eta Basozabalen moldiztegian inprimatu. Bukatzeko, Bizentarekin eta haren senarrarekin harreman estua zuen Okondoko Jose Pablo Ulibarri idazle arabarraren testuak orrazten eta zuzentzen aritu zen (Kaltzakorta, 1992: 6).

3.2. Julene Azpeitia Gomez (1888-1980)

1888ko urtarrilaren 8an jaio zen Zumaian. Oinarrizko ikasketak herrian bertan egin zituen, eta, ondoren, Donostian eta Bilbon ikasi zuen irakasle izateko. 1911n Valladolideko oposizioetan lehenengo gelditu, eta Bizkaiko ikastoletan ibili zen maistra. 1916an Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen, eta biek batera Mexikora alde egin zuten. 1920an Euskal Herrira itzultitakoan, berriz ekin zion ikastoletan irakasteari. Gerra ondoren erbestean ibili zen alderrai, sorterrira itzuli eta 1947an Bizkaiko Aldundiko eskoletan ibili zen irakasle, baina 1949an zigortu, eta Burgos aldean irakatsi behar izan zuen. 1955etik aurrera Markinara bueltatu zen maistra, 1958an erretiroa hartu, eta harrezkero, Durangon bizi izan zen. 1980ko otsailaren 5ean hil zen Bilbon, 92 urteko bizi luzea atzean utzita.

Haurrak eta euskara dira Azpeitiaren ardatz nagusiak, eta horren adibide garbia da Emakume Abertzale Batzaren (EAB) ideologia abertzalea jarraiki, bizitza osoan zehar irakaskuntza eta euskaltzaletasuna uztartu izana.

Itsasoaren bestaldean herriminak jota ekin zion «Arritokieta» ezizenpean idazteari. Halere, Euskal Herrira itzultitakoan hasi zen garaiko kultur munduan aktiboki parte hartzen, betiere irakaskuntza alde batera utzi gabe. Euskaltzain urgazlea izan zen, ikastolen sorreraren mugimenduan ibili zen, irratsaio ugari egin zuen Loiola eta Arrate irratietan, eta hainbat aldizkaritan argitaratu zituen sormen lanak garaiko haur-literaturaren hutsunea betetzeko asmoz: *Euzkadi*, *Argia*, *Euskera*, *Ekin*, *Yakintza*, *Egan*, *Zeruko Argia*, *Karmel* eta beste zenbaitetan.

Literatur lehiaketetara aurkeztu eta sari andana irabazi zuen: *Irakurri matte* (1932), *Euli baten edestia* (1933), *Amandriaren altzoan* (1961) eta *Goizeko izarra* (1959) izenburupean argitaratutakoekin, besteak beste. Horrez gain, gerra hasi aurreko XX. mendearen hasieran, emakumezkoen hiruzpalau liburu besterik ez ziren argitaratu, horietako bat Azpeitiaren *Osasuna, merketza eta janaritza* (1922) sukalde-liburua. Saririk gabeko hainbat lan ere argitaratu zituen, baita irakaskuntzari buruzko artikulua bakan batzuk idatzi ere.

Ezer gutxi dakigu, ordea, Azpeitiak egindako itzulpenei dagokienez. Ziur asko gehiago izan zitezkeen arren, Azpeitiak euskaratutako bi lan soilik iritsi zaizkigu eskuartera: kontakizun laburra da bata, poesia bestea.

Lehena, *Les Grandes Amitiés* (1941) liburutik ateratako «Passage de la Bonne-Graine» kontakizuna dugu, Errusian jaiotako Raïssa Maritain (1883-1960) emakumezko poeta eta

filosofo frantsesarena. Azpeitiak «Azi onaren karrika estua» izenburupean itzuli zuen ipuina, eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak sortutako *Egan* aldizkariak eman zuen argitara 1970eko uztail-abendua eta 1971ko urtarril-abendua zenbakian. 48-50 orrialdeetan ageri den hiru orrialde eskaseko kontakizuna dugu euskaraz, eta, bukaeran, poetaren izenaren alboan, «Jacques Maritain, France'tar filosofo haundiaren emazte zana», zehazten digun oin-ohar bat ageri da, ezer baino lehen gizonezko baten emaztea dela argitzen diguna.

Azpeitiak bazuen frantsesezko jakintzarik. Hala dio, behintzat, Joxemiel Bidadorrek 1996ko ekainaren 7an *Euskaldunon Egunkarian* idatzitako artikulu batean: «[b]erri iturriak Europa osoan zituen, mundutik asko ibilia baitzen, frantziar eta belgiar ereduak sobera ezagutzen zituen eta *Journal des instituteurs et des institutrices* delakoa sarri irakurtzen zuen». Litekeena da, beraz, Azpeitiak kontakizuna frantsesetik euskarara zuzenean itzuli izana.

Bigarrena, aldiz, Antonio Machado Ruiz (1875-1939) poeta espainiar ezagunaren poema bat da. 1924an argitaratutako *Nuevas canciones* poema-liburuko «Apuntes» olerkiaren parte da Azpeitiak euskaratutakoa. Poema horren parte dela diogu, «Apuntes» poema lau ahapaldik osatzen baitute, eta Azpeitia soilik II-III-IV ahapaldiak itzultzer mugatu zelako. Horrez gain, Azpeitiak izenburua aldatzea erabaki, eta «Ontza. La lechuza» titulua jarri zion Machadoren poemaren itzulpen-moldaketari.

Azpeitia jada hila zela, 1989an kaleratu zen itzulpena, Euskerazaintza elkartearen izen bereko aldizkarian, 6. zenbakiko 38. orrialdean. Hiru ahapalditan banatutako euskarazko olerkia jarraiki, Azpeitiak idatzitako ohar bitxia dator, tartean honakoa dioena:

«Oleriti polita dalakoz ipiñi dut emen neuk euskeratuta». (Azpeitia, 1989)

Irakasle senak bultzatuko zuen ziur aski Machadoren poema hori itzultzer, aipuan dioen bezala, olerki polit eta atsegina iruditu, eta hurrei euskara maitatzen irakatsi nahi zielako itzuliko zuen.

Azpeitiaren itzulpen kopuru txikia dela eta, ez dugu topatu euskaratutako lanen baloraziorik. Halere, haren sormen-lanen estiloari buruz esandakoei esker, itzulpen-lanetan erabilitako euskara nolakoa zen aurreikus dezakegu.

«Estilo zuzen eta arina, hiztegi zehatza eta egitura sinplea erabiliz, ardura handia erakutsi zuen Azpeitiak hizkuntzarekiko. Gipuzkera zein bizkaiera erabili zituen, bizi zen lekuetako umeen hizkerari moldatu

nahiz. Eta hizkuntzaren batasun-bidea urratu zenetik, berak ere batuaren antza eman zien bere idazteiei, [...] horixe bait zuen ulergarriago suertatzeko bidea». (Mintegi, 1987: 11)

«Ipuinak bezala haren esaldiak, ezagutuak, laburtuak, moldatuak eta zehaztuak dira, eta zalantzarik sortu kasurako, hiztegi labur eta argigarri bat eskaini ohi zuen atzekaldean». (Mintegi, 1987: 11)

«Euskera erreza du, batez ere umeentzako bezelakoa (baita nagusi askok ejenplutzat artzeko bezelakoa ere), apaltasunez egiñak baña bizi-biziak... ». (San Martín, in Azpeitia, 1961)

3.3. Robustiana Mujika Egaña «Tene» (1888-1981)

1888ko maiatzaren 24an jaio zen Debako kale nagusian. Familia euskaldun, fededun eta abertzale sutsukoa zen Tene, herriko janari denda handienaren jabeen alaba. Sei bat urterekin hasi zen Debako eskola publikoan, eta, euskaraz alfabetatzeko aukerarik izan ez arren, bertan ikasi zuen gaztelaniaz irakurtzen eta idazten.

«Nork irakatsi ote zion euskal gramatika? Denda izan zitzaiola unibertsitate eta Itziar aldeko baserritarrak irakasle hizkuntzari eta herri kulturari zegozkionetan, aitortu omen zien S. Onaindia eta A. Zubikarai adiskide gazteagoei». (Dorrnsoro, 2004: 8)

Hamabi senideetan bederatzigarrena zenez, ezin izan zuen ikasketekin aurrera jarraitu, eta etxeari lotu beste aukerarik ez zuen izan nerabezaroan; haatik, dendari ere ibili zen gurasoenean. Ordu libreetan, euskal klasikoen obrak irakurtzen zituen (Axular, Larramendi, Kardaberaz, Mogel...). Hara joaten zitzaion gurasoen lagun Don Lorenzo Boneta apaiz euskaltzalea, zahartuta ongi irakurri ezin, eta neskatxak zer edo zer irakur ziezaion.

Halere, bizkarreko oinazeak behartuta, 1909 aldera ia erabat utzi behar izan zuen dendako zeregina. Hamar urte eman zituen etxetik apenas atera ezinik, harik eta hogeita hamar urterekin operatu, eta guztiz eraberritu zen arte. Tarte horretan *Jaungoiko-Zale*, *Euzkadi* eta *Euzko Deia* aldizkariak irakurtzeari ekin, eta ikasitakoa aldarrikatzeko asmoz, idazteko gogoia piztu zitzaion.

Osatutakoan, eta euskal literatura albo batera utzi gabe, politikan murgildu zen betebetan. Comución Nacionalista Vasca (CNV) alderdikoa zenez, ez zuen Emakume Abertzale Batzan (EAB) sarbiderik, hori dela eta, Abertzale Atzarri Batza sortu zuen, aurrekoaren berdina zena. 1931n, II. Errepublikarekin, CNVk eta EAJk bat egin, eta 1935ean Emakume Abertzale Batzako lehendakari hautatu zuten. Gerra garaian, EABko lehendakari zela eta, erbesteratu behar izan zuen, eta Ziburun, Ipar Euskal Herrian aterpe

hartu. Gerra bukatzean, herrira bueltatu, eta berriro ere idazteari ekin zion. 1975ean, Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak Julene Azpeitia eta Madalena Jauregiberryrekin batera. Idazten jarraitu zuen adinean aurrera ere, eta, azkenean, 1981eko irailaren 16an hil zen, 93 urterekin.

Tene Mujika oso idazle oparoa izan zen, eta askotariko generoak landu zituen: poesia, antzerkia, artikuluak, ipuinak...

Poesia izan zen landu zuen lehena, gaixoaldi luzeak eman baitzion horretarako bide. Kirikiño ezagutu, eta 1916an *Euzkadi* eta *Euzko Deia* kazetetan hasi zen bere lehen olerkiak argitaratzen, eta beranduxeago, *Jaungoiko-Zalen*. Azken aldizkari horrek argitaratu zion 1923an *Miren Itziar-i idazkiak eta olerkiak* izeneko olerki-liburua, Dorronsororen aburuz (2004: 15) emakume abertzalearen eskuliburu bilakatuko zena.

Sendatutakoan, euskal emakume abertzaleen lider izaki, herriz herri hitzaldiak ematen ibili zen, eta antzerkia euskara erakargarria egiteko genero egokia izan zitekeela otu zitzaion. Hala, *Gogo-oñazeak* (1934), *Gabon* (1935) eta *Joan Joxe* (1936) antzezlanak idatzi zituen, baita haiei esker zenbait sari irabazi ere. Lehen bi horiek *Antzerti* aldizkariak argitaratu zizkion 1934ko 34-35-36 eta 1935eko 46 zenbakietan.

Azkenik, gerraostean Debara itzuli, eta artikulu zein ipuinak argitaratzeari heldu zion gehienbat. 1964an, Ondarroan, Txomin Agirreren mendeurrena ospatzeko Lore Jokoetan, lehenengo saria lortu zuen nekazari bizitzari buruzko lanarekin.

Aipatutako lan horiek guztiak, garaiko honako aldizkarietan argitaratu zituen han-hemenka: *Euskal Esnalea*, *Euzko-Deya*, *Gure Herria*, *Euskerea*, *El Día*, *Euzkadi*, *Agur*, *Luzaro*, *Goiz-Argi* eta *Deva*.

Mujikak egindako itzulpen kopurua guztiz sinbolikoa da, euskarara ekarritako lan bakarra iritsi baitzaigu eskuartera: José Zorrilla poeta eta antzerkigile espainiarraren poema bat. Halere, hobe gutxi deus ez baino, eta zer edo zer euskaratu izanagatik merezi du lerrootan aipatzeak.

Zorrillak 1888an idatzitako *¡A escape y al vuelo!* olerki-liburuko poema bat euskaratu zuen Mujikak. Zorrillak Guaquiko kondesari idatzi zion liburua, poeta espainiarra haren etxean egon baitzen apopilo Zarautzen pasa zuen hilabetean. Liburuan Zorrillak bisitatutako Gipuzkoako herri bakoitzari eskainitako poemak irakur ditzakegu, eta gure

Tenek, debarra izanik, sona handiko espainiar poetak bere herriari ondutako «Deva» izeneko poema luzearen zati bat euskaratu zuen. Halere, jatorrizko olerki-liburuko izenburua berreskuratu, euskaratu, eta hala titulatu zuen itzulitako poema: *Egaka ta igeska*.

Itzulpena euskara hutsean idatzitako *Zeruko Argia* hilerokoan atera zen argitara, 1967an, aldizkariaren 233. zenbakiko 12. orrialdean, hain zuzen ere.

Mujikaren itzulpen jardun ia eza ikusirik, inork gutxik espero lezake hark euskaratutakoaren inguruko kritikarik. Idatzi, ordea, usu egin zuen, eta haren sormen-lanen estiloari buruz esandakoekin nolako itzulpena egin zuen imajina dezakegu.

«Garbizalea dugu, garaiko giroari zegokionez edo agian gehixeago. Mailegurik antzinakoena, euskaldunduena eta erabiliena baino nahiago ditu neologismo edo arkaismo ulergaitzenak. Hala ere, edonorentzat ulergarri dira bere idatziak, hitz lauz nahiz neurtuz ari, herri xumearen hizkera kulturaz asearen bahean iragaziak baititu, esamolde, atsotitz, anekdota eta metafora aberatsez garden eraikitzeraino». (Dorransoro, 2004: 14)

3.4. Maria Dolores Agirre Aizpuru (1903-1997)

1903ko ekainaren 8an jaio zen Errezilen ordura arte eta denbora luzean euskal emakume itzultzailek oparoena izango zena. Sei urtetik hamabira bitarte bertako eskolan ikasi, eta osabak txikitatik euskaltzaletu zuen. Hamalau urterekin Donostiara lekualdatu, eta maistra ikasketak egin zituen lehen euskal emakumeetako bat izan zen, euskal literaturan eta heziketan giltzarri izango zirenekin batera: Julene Azpeitia, Katalina Elizegi, Elbira Zipitria... 1924an Eugenio Lasheras mediku donostiarrarekin ezkondu, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Etxean hasi zen euskarazko eskolak ematen. Segituan, Donostiako Euskal Izkeria ta Iztunde Ikastolara batu zen: ikasle lehenengo, irakasle gero. Izan ere, 1932an irakasle postua lortu zuen. Esanguratsua da, halere, oposizioko lau ariketetako lehena itzulpena izan zela: *Don Kixoteren* zati hautatu bat euskaratzea, eta *Geroren* beste bat gaztelanariatzea. Azpimarragarria da, baina, emakume izateagatik azterketan baztertua izan zitekeen beldur zela Agirre. «Emakumea izatea, garai haietan, ez zen prezeski gauzak errazten zizkidan meritua» aitortu zuen (Auzmendi, 2002: 12), eta are gutxiago 30 urte zituela, bi ume txikiren ama eta garai hartan emakume izanik lanean. Gerrako etenaldia eta gero, 1953an hasi zen Euskal Iztundearen bigarren aroa Agirreren zuzendaritzapean, 1973an jubilatu zen arte. Irratian ere aritu zen denbora luzez, 1955ean hasi eta hurrengo 25 urteetan. *La Voz de*

Guipúzcoa kateko «Baserri» programan egiten zuen lan. Halere, aztergai ditugun beste itzultzaile gehienek ez bezala, aipagarria da Agirrek bere jarduna Emakume Abertzale Batzarekin uztartu ez izana.

Herri hizkera defendatu, eta Euskaltzaindiaren bidea oso begi onez ikusi ez arren (Auzmendi, 2002: 18), euskaltzain urgazle izan zen. EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak), bestalde, ohorezko bazkide izendatu zuen euskal itzulpengintzari egindako ekarpen bikainagatik.

Bizitza luzea atzean utzita, Donostian hil zen Maria Dolores Agirre Aizpuru 1997ko uztailaren 26an.

Agirrek euskara irakasten, antzerkigintzan, irratian, eta, oro har, euskara erabil zitekeen leku gehienetan lan egin zuen arren, batez ere itzultzaile gisa egindako bide oparoa nabarmendu nahiko genuke datozen lerrootan.

Gehien itzuli zuen literatur generoa antzerkia izan arren, narratiban ere egin zuen itzulpenik.

Orduko hainbat antzerki-taldek eskatuta, antzezlan andana itzuli zuen, eta bere itzulpenen fruitu dira kronologikoki aipatuta: Tagoreren *Amal* (1962), Casonaren *Txalupak jaberik ez* (1963), Lozanoren *Oriko txoria Orin* (1965), Gazzoren *Txapela bete euri* (1966), Casonaren *Irugarren itza* (1967), Lorcaren *Iturri-legor* (1968), Calvo Soteloren *Etzan ate joka etorri* (1968), Lorcaren *Iturriko Urretxindorrak* (1968), Rubioren *Beste ertza* (1970), Guerrero Urreistiren *Iparragirre* (1971), B. Vallejoren *Illumpe goritan* (1973), eta P. Barojaren *Alzateko jaun* (1979an Felipe Yurramendirekin batera itzulia).

Aipatutako guztietatik, ordea, bizi zelarik hiru itzulpen besterik ez ziren argitaratu antzerkiaren alorrean. Batetik, Tagoreren *Amal* eta P. Barojaren *Alzateko jaun* 1984an argitaratu zituen Donostiako Edili argitaletxeak liburu bakarrean. Bestetik, Casonaren *Txalupak jaberik ez* 1996an kaleratu zuen EIZIEk, *Itzulpen Antologia I* bildumaren baitan.

Narratibari dagokionez, José Luis Muñoyerroren *Ilargian ere euskaraz* lana itzuli zuen Maritxu Urretarekin batera, eta Izarra argitaletxean kaleratu 1967an. H. Gheonen *Lourdesko lorea* (1958) ere orraztu eta osatu zuen, Garzia Elustondok euskaratu eta gero.

Antzerki eta narratiba lanak itzultzeaz aparte, sarritan egin zituen Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalerako itzulpenak ere.

Horrez gain, Maria Doloresek idatzi zuen sorkuntza lanik ere. Lehena, 1949an, *Aukeraren maukera, azkenian... okerra* izeneko bakarrizketa, *Egan* aldizkarian argitaratua, 1950eko 2. zenbakian. Bigarrena, *Bear-bearra* narratiba lana, *Eganen* 1956ko 5/6 zenbakian argitaratua. Hirugarrena, *Au dek maltzurkeria!* antzezlan, 1958ko abenduaren 21ean Donostiako Antzoki Zaharrea estreinatua.

Ia-ia laudorioak baino ez zituen jaso antzerkiaren bidez altzoan euskaltzale andana bildu ohi zuen andrazkoak. Bere gidaritzapean taularatutako antzezlanki zeresan handia eman zuten arren, interpretazioari buruz esandakoak alde batera utzi, eta hizkuntzari buruz esandako hiru aipuri helduko diegu, itzulpenetan zein hizkuntza erabiltzen zuen irudika dezagun.

«Maria Doloresek, emakume jakintsua baitzen bera, bazekien gai guztietan ezin dugula euskara berdina erabili, eta horregatik, bazekien irratian eta antzerkian egin behar den euskarak ulerterraza, gozoa eta jendeak erabiltzen duenaren antzekoa izan behar duela». (Auzmendi, 2002: 24)

«Saiatzen zen Maria Dolores hitanoa erabiltzen eta bizitasuna bere elkarrizketei ematen». (Urkizu, 2003: 40)

«1972an, Gipuzkoako egunkari bateko kritikari batek esana: “Maria Dolores Agirrek behin eta berriz uste du hizkuntza idatzia herriak hitz egiten duen moduan erabili behar dela. Ona eta benetakoa da bere jarrera. Baina herriak, edozein gizakik bezala, huts ere egin dezake eta hori gogoratu beharko liokete adituek, Euskaltzaindiakoek”». (Hemen aipatua: Auzmendi, 2002: 18)

3.5. Miren Etxabe Aldai «Lau Uxo» (1903- 1993)

1903ko martxoaren 5ean jaio zen Zarautzen. «Xalesenekoa» eta, batez ere, «Lau Uxo» ezizenez ezaguna, gazte-gaztetatik egon zen bere herriko bizitza kulturalari eta politikoari lotuta: 1924ko lehen Euskal Jaien animatzaile taldean aritu zen, esaterako (Unzalu, 2019).

Luzearrek 1930eko abuztuaren 7an *El Díat* egindako deialdiari erantzunez, hilabete bereko 24an, ezagutzen den lehen emakume idazleen batzarra egin zen Zarautzen. Bertan elkartu ziren hamabi emakume abertzale, bide berri bat hasteko asmoz. Haietako bat izan zen «Lau Uxo»; Gurrutxagak (2018) zehazten duenez, hitzaldiak ematera eta EAJren mitinetan hitza hartzera ohituta zegoenez, hark egin zituen antolatzaile lanak, baita harrera-hitzaldia ere. Historian euskal emakume idazleen lehen bilkura historikoa izan zen hura.

Etxaberen prestutasunak eta konpromisoak mitinak ematera eta ardurak hartzera eraman zuen pixkanaka. Politika munduan betidanik egon bazen ere, oraingoan bete-betean

murgildu, eta garaiko Emakume Abertzale Batzako kide izatera pasa zen. 1933an eta 1934an Zarauzko EAB erakundeko lehendakaria izan zen, eta Batzokiko sortzaileen artean emakume bakarra. Horrez gain, Uruburuk dio (1997: 12) Euskal Esnaleak eratzen zituen hitzaldi-saioetan parte hartu zuen bigarren emakumea izan zela.

Halere, politika eta luma uztartzen, eta besteak beste *El Díako* Euskal Orrian «Lau Uxo» ezizenez argitaratzen jarraitu zuen. 1931 izan zuen urterik oparoena, eta noiznahi irakur zitezkeen «Lau Uxo»ren idatziak. Bitartean, Zarauzko Ikastolako hastapenetan andereño lanetan ere aritu zen musu-truk.

Antzerki munduan ere ibili zen gerraurrean herriko Naste Borraste taldearekin. 1931ko martxoaren 4an Donostiako Kurasaalean Eusko Ikasle Batzak antolatutako Euskal Jaietan zuzendari izan zen Nikolas Mujika (margolaria) eta Endika Gonzalez Arroita jauregiarekin (udal bandako zuzendaria) batera.

Gerraostean, Jaurlaritzak Europan zehar Euskal Herriaren aldeko propaganda egiteko sortutako Eresoinka abesbatzan irrintzilari jardun, eta kontraltoekin kantatzeko aukera izan zuela zehazten digu bere birbilobak (Unzalu, 2019). Harik eta Bigarren Mundu Gerra hasi, Zarautzera bueltatu, familiako dendan lan egin behar izan, iheslariei lagundu, eta 1993ko maiatzaren 3an bere jaiotetxean zendu zen arte.

Etxabek lan bakarra itzuli zuen, beraz, apenas egin zuen euskaratze lanik. Halere, pare bat hitzaldi eta mitin andana eman zituen han-hemenka.

Itzulpenari dagokionez, Salvador Arriola apaizaren *La Virgen de las Angustias* gaztelaniazko antzezlan euskaratu zuen 1929an, *Itziar'ko Ama* titulupean. Aipatutako lanak urte bereko Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren *Juventud* aldizkariaren literatur lehiaketan lehen saria irabazi zuen antzerki-sailean, eta 1929ko irailaren 7an antzeztu zen estreinakoz Azpeitian.

2000ko otsailaren 2ko *Euskaldunon Egunkariak* aditzera eman zuenez, Euskaltzaindiak Etxaberen *Itziar'ko Ama: Etxabe ta Aldai'tar Miren'ek euzkeratutako iru ataldun antzerkia* izeneko testuaren eskuizkribua jaso zuen dohaintzan, eta 2002an argitaratu zuen Zarauzko Olerti Etxeak, 39 orrialdeko liburuan bilduta. Kutxak ere berrargitaratu zuen 2005ean.

Hitzaldiei dagokienez, bi izan ziren. Batetik, 1930eko apirilaren 27an, Euskal Esnalea elkarteak gonbidatuta eman zuen hitzaldia, «Zorionaren iturria gizonak non du?» izenekoa.

Donostiako Novedades antzokia izan zuen plaza, eta hitzaldi horretarako prestatutako oharak orain gutxi, 2002an, argitaratu zituen Zarauzko Olerti Etxeak, Poesiaren Nazioarteko Egunaren harira. Bestetik, 1930eko uztailaren 29an, «La mujer y el euskera» izeneko hitzaldiarekin irekiera eman zion Donostiako Euskaltzaleak elkarteak antolatutako «Homenaje de la mujer al euskera» ekitaldi garrantzitsuari.

3.6. Maritxu Urreta Zulaika (1915-2018)

1915eko irailaren 10ean jaio zen Donostian, Miren Arantzazu izenez. Irurretak (2018) dioen gisan, etxean arnastu zuenak arrasto handia utzi zuen beregan. Aita sona handiko hizlaria, eta besteak beste EAJren Gipuzko Buru Batzarrako lehendakaria izandakoa. Euskaltzale sutsua, Euskal-Esnalea eta Euskaltzaleak kultur elkarteetako kidea, baita azken horren buru ere. Ama, berriz, Maria Zulaika zuen, Aita Donostiaren arreba. Senarraren moduan ekintzailea, eta Gipuzkoako «Emakumeen» buru izandakoa.

Amak eta amonak bezala, Maritxuk ere Donostiako San Bartolome ikastetxean egin zituen 16-17 urte bitarteko ikasketak. Ondoren, White (1996: 193) ikertzailearen esanetan, Madrilera egin zuen alde bertako Escuela Central de Idiomasen ingelesa eta frantsesa ikastera. Halere, frantsesezko oinarritzko ezagutza bazuen, hamabi urterekin astero jasotzen baitzuen etxean *La Semaine de Suzette* gaztetxoentzako frantsesezko aldizkaria. 19 urterekin, Ingalaterrako Folkestone hirian eman zituen hainbat hilabete ingelesa hobetzeko asmoz, oso ezohikoa garai hartako emakume batentzat. Gerora, alemana eta italiara ere ikasi zituen, liburuak jatorrizko hizkuntzan irakurri ahal izateko. Horiei euskara eta gaztelania gehitu behar zaizkie.

1936ko Gerra Zibila piztu zenean, gurasoen militantzia jeltzalea medio, Urreta-Zulaika familiak Donostiatik ihes egin behar izan zuen, Azkainera (Iparraldera), 1940ra arte. Gerra amaitu eta Donostiara itzultzerakoan, arestian aipatutako Maria Dolores Agirre itzultzaile eta irakasle errezildarrak ematen zituen euskarazko eskolen berri izan zuen, eta hara abiatu zen, etxeko hizkuntza lantzerantz eta idazten ikastera. Ordudanik denbora dezente igaro den arren, «Maria Dolores Agirrek miresten eta zabaltzen zuen euskara garbi, atsegina eta herrikoia maite du gaur ere Maritxuk, trakeskeriarik, erdarakadarik eta mordoilokeriarik gabea» (Azurmendi, 2005: 13).

Hizkuntzak ez ezik, marraztea ere ikaragarri gustatzen zitzaion Urretari. Hala, hainbat liburu ilustratu zituen, baita Agirrerekin batera euskaratutako *Ilargian ere euskeraz* (1967)

ipuina ere. Horrez gain, garai hartako emakumeei ezarritako rolak hautsi, eta, aurrekoetz bestalde, argazkigintza eta mendizaletasuna izan ziren Maritxuren zaletasunik handienak. Mende pasatxoko bizian 7.000 inguru argazki atera, eta denboraldi bakarrean ehun gailur urratzera iritsi zen, baita Mont Blancekoa ere.

Whiteren (1996: 193) esanetan, Urretak *Zeruko Argia* eta *Egan* aldizkarietan argitaratu zituen artikulurik aipagarrienak. Halere, lan hau egin bitartean Armiamako *Literatur Aldizkarien Gordailua* arakatu dugu, Ibinagabeitia Proiektuak eskuragarri jarritakoa, eta *Egan* aldizkarian ez dugu topatu hark sinatu artikulurik.

1996an, euskal literaturako zenbait idazle-itzultzaile handirekin batera, EIZIEk Ohorezko Bazkide izendatu zuen Urreta, eta omenaldi haren harira propio egin zuen azken itzulpena.

2018ko abuztuaren 13an hil zen, 102 urterekin, bere bizipenek inolako interesik izan zezaketela ondo ulertzen ez zuen emakume aitzindaria (Azurmendi, 2005: 1).

Maria Dolores Agirrerekin ikasitakoaren eta sei hizkuntza menderatzearen fruitu dira Urretaren literatur itzulpenak: antzezlan bat, ipuin bat, eta poema bat. Kopuru aldetik ez zuen lan andana itzuli, genero aldetik, ordea, askotarikoa izan zen haren aukeraketa. Literaturaz gain, editorialak ere euskaratu zituen. Poema eta editorialak 1970eko hamarkadaz gero euskaratu bazituen ere, garrantzitsua deritzogu haiei buruzko aipamen laburra egitea, itzultzailearen obrari osotasuna emate aldera.

Mendian elkar ezagututako Jose Luis Muñozerro idazle eta kazetari bizkaitarraren bi lan euskaratu zituen: *Lartaun eguzki-semea* antzezlan batetik, 1960an Zarauzko Itxaropena argitaletxeak Kuliska Sortan argitaratua; *En la luna también se habla vascuence* (1967) ipuina bestetik. Azken hori 1967an itzuli zuen Maria Dolores Agirrerekin batera *Ilargian ere euskeraz* izenburupean, eta Donostiako Izarra argitaletxeak kaleratu zuen urte berean. Onaindiaren arabera: «[l]iburu au ere, emakumearen barne-txairotasunari dagokionez, euskera jatorrak berezkoa duen jaikitasunez jantzia» (1990: 114).

Azkenik, EIZIEk 1998an kaleratutako *Itzulpen Antologia II* liburuan argitaratu zen poema luzea. EIZIEk 1996an, *Itzulpen Antologia I* izeneko liburua kaleratu zuen elkarteko lehen ohorezko bazkide izendatutako itzultzaileen omenez, «itzultzaile horien lanarekiko aitorpen bezala ez ezik, beste itzultzaileontzako eta lan honetan hasiko direnentzako ikasbide bezala ere» (Azurmendi eta Biguri, 1998). Ekitaldi berean, EIZIEk beste zortzi

itzultzaile ere omendu zituen (Urreta tarteko), eta konpromisoa hartu zuen lehenengoaren asmo berari jarraituz, haien lanak bilduko zituen bigarren liburu bat argitaratuko zuela. Hala, 1998an kaleratutako *Itzulpen Antologia II* libururako Alice Duer Miller (1874-1942) idazlearen *The White Cliffs* (1940) poema itzuli zuen Urretak euskarara *Itsas-malda zuriak* titulupean. Ingelesetik itzuli zuen, eta, beraz, aztergai ditugun emakume aitzindarien artean, hizkuntza horretatik lehenengoz euskaratu zuen itzultzailea dugu. Ingelesa jakitea egun bezain ohikoa ez zen garaian, Urretaren hizkuntzekiko zaletasunak ingelesetik itzultzea ahalbidetu zion. Juan Mari Lekuonaren hitzetan: «[e]redugarri da ingelesaren ezagutzan, eta aintzindari gaurko joera ingeleszalean» (1998).

Bukatzeko, itzulpen handitan gehiago murgildu ez arren, ez zion itzultzeari utzi, eta 1976an Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko aldizkariko editorialak euskaratzeari ekin zion. Dirudienez, urte dezente eman zituen horretan, Azurmendik 2005ean «duela urte gutxi utzi dio egiteko horri» zehaztu baitzuen (2005: 19).

4. ONDORIOAK

Informazioa interpretatzeko ahalegin labur honetan, Mogelen XIX. mendeko aitzindaritzatik XX. mendeko 70eko hamarkadara arte itzultzen aritu diren dozena erdi emakumeek antzekotasun ugari dauzkatela ikusiko dugu.

Aipatutako itzultzaileak biltzen dituzten ezaugarri orokorrak bilatzen saiatu garen arren, esan beharra dago ezaugarri horiek guztiak ez dagozkiela itzultzaile orori, bai baitago nolakotasun horietatik at dagoen itzultzailearik. Horren adibide dugu Bizenta Antonia Mogel.

Aitzindaria da Mogel, 1804an argitaratutako *Ipui Onac* liburuari esker, egun ezagutzen den lehen euskal emakume idazlea eta itzultzailea bilakatu zelako. Bizentaren heziketaz arduratutako Juan Antonio osaba idazle eta apaiz ospetsu izateak, anaia idazle izateak, eta senarra inprenta baten jabea izateak emakumeak idazten ikastea gaizki ikusia zegoen garaian idatzi eta argitaratzea ahalbidetu zion. Horrez gain, berandu ezkontzeak eta amatasunari uko egiteak ere erraztu zion ezkondukoan idazten jarraitzea.

Esoporen alegiak euskaratu zituen, oso testu klasiko eta kanonikoak, beraz. Bera izan zen Ilustrazioak Europan behea jo zuenean euskal literaturan alegiak argitaratu zituen lehena. Baina alegiak euskaratzeaz gain, Ilustrazioaren helburu didaktikoa segiz, fabulak euskal baserri girora egokitu, eta haurrentzako eta baserriarrentzako hizkera ulertteraza erabili zuen. Hori dela eta, euskal prosa literarioaren sorreran edo haur eta gazte literaturaren sorreran ekarpen garrantzitsua egin zuen Mogelek.

Mende bateko saltoa egin, eta Mogel ez beste guztiez jardungo dugu jarraian. Izan ere, Azurmendik dioen moduan (1997: 41), «Vicenta Moguel [...] fue una excepción y en el caso de la literatura vasca lo fue durante más de cien años».

Julene Azpeitiatik aitzina aipatutako emakume guztiak abertzaletasunaren inguruan ibilitakoak ziren. XX. mende hasierako andrazko ugari gisan, Julene Azpeitia, Tene Mujika eta Miren Etxabe Emakume Abertzale Batzaren harira hasi ziren literaturaren alorrean. Elkartearen helburua gizonezkoek politika arloan egindako lana kultura bidez osatzea zenez, pentsamolde jeltzalea indartzeko eta lau haizetara zabaltzeko asmotan ekin zioten andrazko horiek, besteak beste, garaiko aldizkarietan idazteari. Azpeitiak lan eskerga egin zuen erakundearen alde; Mujika EABko lehendakaria izan zen; eta Etxabe Zarauzko

EABko lehendakaria. Maria Dolores Agirrek eta Maritxu Urretak erakundearen militatu ez arren, geroago ikusiko dugun bezala, lehenak zeharka egin zion ekarpena abertzaletasunari; bigarrena, ordea, etxeko giro guztiz abertzalean hazi zen. Era berean, jarrera politiko jeltzale irmo hori izango da Azpeitia, Mujika eta Urreta gerra garaian erbestera eramango dituenak.

Euskal irakaskuntzari lotzen zaizkio aztergai izan ditugun sei emakumeen erdiak. Izan ere, Bigarren Errepublika garaitik aurrera EAJren babesean euskal eskola edo ikastolen kopuruak nabarmen egin zuen gora, eta euskarazko irakaskuntza indartsu hasi zen hedatzen. Emakume Abertzale Batzaren ideologia abertzaleari jarraiki, irakaskuntza emakumearen zeregin egokitzat jotzen zen seme-alaba abertzaleak hezteko. Hori dela eta, garai hartan maistra ikasketak egin zituzten lehen euskal emakumeetako bi izan ziren Azpeitia eta Agirre, eta irakasle aritu ziren eskoletan, Etxaberen antzera. Agirrek, gainera, helduen alfabetatzeari heldu zion, eta etxean bertan hasi zen euskarazko eskolak ematen. Azpeitia zen orduko hezkuntza-sistema gehien kritikatzeko zuena, baina, halere, hirurek euskara nagusi izango zen eredu aldarrikatzen zuten. Hori lortzearren, hiruren, baina, batez ere, Azpeitiaren idatzietako asko, umeei zuzenduak eta umeen heziketaren ingurukoak ziren, euskarazko eduki literario-didaktikokoak. Ez da kasualitatea, ordea, hirurak emakume idazleak eta irakasleak izatea aldi berean, euskaraz idazten jakiteko ikasia izan behar baitzen. Mujikak ezin izan zuen irakasle ikasketarik egin, eta Urretak irakastea baino, ikastea zuen nahiago.

Aldi berean, XX. mende hasierako euskal gizarte katoliko hertsian emakumezkoak bizi zuten egoera iraultzeko aurrerapauso andana egin zuen zenbait andrazkok. Estereotipoen aurka borroka egin, eta etxetik publikora egin zuten salto *Andereño Idazleen I. Batzarrean*.

Luzearrek 1930eko abuztuaren 7ko *El Díako* Euskal Orrian egin zuen deialdia «Andereño idazleok entzun» izenburupean, bere asmoa azalduz: «euskaldun andereñoak, idazlerik onenak egin nahi zinduzket, ez nire almenez (etzazute parririk egin), zuek idaztera beartu utsaz baizik». Haren gonbidapenari erantzunez egin zen uda bereko abuztuaren 24an *Andereño Idazleen I. Batzarra* Zarautzen, eta Emakume Abertzale Batzako hamaika kidek hartu zuten parte, Etxabek tartean.

Berriako artikuluan Amaia Alvarez Uriak dioenez, «haientzat, oso definituta zegoen emakumearen lekua. Hala ere, ahaldundu ziren, eta euskal kulturaren plazara irten eta beren ahotsa entzunarazi zuten» (Gurrutxaga, 2018). Batzarra egin eta pixka batera, ordea,

egunkari bereko eta urte bereko irailaren 9an, emakume horietako batek, Elbira Zipitria *Irak beldur* hitza aipatu zuen: «[e]z bakarrik Zarautz'en bildu giñanak, baita juan eziñik edo bildurrez edo... azaldu ez ziranak ere. Bildurrez, bai enetxoa, musu punta erakutsi ta gorde ostera. Neroni ere zerbait ikaritzen asi nintzan. ¿Ain izugarriak ote gaitun?, nion nereko». Besteek esango zutenaren beldur ziren, garai hartan emakumeari etxeko lanak egitea egozten zitzaizolako. Ez, ordea, gizonezkoen esparru zen literaturan bidea zabaltzea.

Mintzagai ditugun andre zenbaitek lehenago egin bazuten ere, gizartean zereginik bazutela uste zuten emakume ausartak plazan agertzearekin batera hasi ziren Azpeitia, Mujika, Agirre, Etxabe eta Urreta garaiko kazetetan usuki sormen lanak argitaratzen: *Euzkadi*, *Euskal Esnalea*, *Egan*, *Euzko Deia*, *Jaungoiko-Zale*, *Antzerti*, *Gure Herria*, *Euzkerea*, *El Día*, *Euzkadi*, *Agur*, *Luzaro*, *Goiz-Argi*, *Deva* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan, besteak beste, plazaratu ohi zituzten haien idatzi aipagarrienak. Aldizkari horiek lekutxo bat egin zieten mugaz honanzko andrazkoei, eta, hortaz, areagotu egin zen ordura arte emakumeek euskal literaturan izandako presentzia. Horrez gain, aipatutako bost itzultzaileek, Urretak salbu, Lore Jokoetan, Euskal Jaietan, literatur lehiaketa ospetsuetan edota garaiko elkarteek antolatutako ekimenetan parte hartu zuten. Azpeitiak eta Agirrek letretatik uhinetara salto egin, eta irrastian ere ibili ziren. Helburu guztiz politikoak bultzatuta egin zituzten lan horiek: beren idatzietan gehienetan EABren ideologia zabaldu besterik ez zuten egiten, alegia.

Halere, Etxabek salaketarako plaza ere erabili zituen aipatutako aldizkariak eta ekimenak. Zipitriak sentitutako beldurrari muzin egin, eta emakume iraultzailearen haritik tiraka, euskararen eta abertzaletasunaren aldeko hautuaz gain, ez zuen nahikotzat nazionalismoak emakumeei eskaintzen zien papera, etxean, baserrian, edo hizkuntza zaintzen. Hori dela eta, emakumeen berdintasuna eta eskubideak aldarrikatu zituen. 1930eko apirilaren 27an Euskal Esnalearen eskutik emandako «Zorionaren iturria gizonak non du?» hitzaldia, esaterako, iraultzailea izan zen bete-betean; ikusi besterik ez dago bertan esandakoa: «[e]makumeak argalak gerala ¡zenbat aldiz entzuten degu! Bai ba... gizonak, indar eta jakin-duriz beteak bai-daudez... Eta... gizon indartsu eta jakintsu oiek ¿nondik sortuak ditugu...? Ez ote-dira gogoratzen berak ere badutela edo izan dutela ama bat?» (Etxabe, 1930).

Behin XX. mendean zehar itzultzen aritu diren emakumeen profila zehaztuta, haien euskaratze jardunari helduko diogu jarraian. Aipagarria da haien itzulpen lanei buruz

esandako askorik ez dugula topatu. Halere, idazleen sormen lanak nolakoak, halakoak izango dira itzulpenak ere; hau da, oro har, autore bakoitzak darabilen idazmoldearen araberakoa izango da hark egindako itzulpena. Hori dela eta, lanean zehar haien estiloari buruzko zenbait aipu esanguratsu jarri ditugu.

Azpeitia, Mujika, Agirre, Etxabe eta Urretaren sormen-lanetan Euskal Herriko historia sozio-politikoak eragina izan duen arren, itzulpenetan ez da hala izan. Beste era batera esanda, itzultako literatura lanak, bere horretan, oro har, ez dira testu politikoak. Itzulgai horiek aukeratu izanak du, ordea, kasu askotan helburu politikoa. Aztertutako itzultzaileek hiru genero izan dituzte itzulgai: antzerkia, narratiba eta poesia.

Antzerkia izan da haietako hiruk itzultzeko hautatutako literatur generoa, antzerkia baitzen propaganda politiko abertzalerako tresnarik eta generorik arrakastatsuenak. 1931n, *Andereño Idazleen I. Batzarraren* hurrengo urtean, EABko idazle haiek berriro elkartu, eta antzezlanak itzultzearen eta sortzearen beharra izan zuten mintzagai.

Arestian aipatu gisan, Agirrek ez zuen bere jarduna publikoki Azpeitiak, Mujikak eta Etxabek bezala Emakume Abertzale Batzarekin uztartu. Emakume euskaltzale sutua, elizkoia eta abertzalea izan arren, eta «[n]ire eskoletan euskara eta herri hau maitatzen ikasazten saiatzen nintzen» (Auzmendi, 2002: 8) zioen arren, beste bide bat hartu, eta gerizpean bultzatu zuen garaiko abertzaletasuna. Antzerkiak ematen zion bide Euskal Iztundean euskara, euskal kultura eta ohiturak irakasteko, baita «salaketa, itxaropen eta elkartasun mezua ekar zezaketen lanak» (Auzmendi, 2002: 16) euskarara itzultzeko ere. Hori dela eta, Agirrek hamaika antzezlan ekarri zuen euskarara, baina bada antzerkia itzulgai aukeratu zuen besterik ere: Etxabek eta Urretak antzezlan bana ekarri zuten euskarara. Mujikak ere generoaren entzutearen berri eduki, eta itzuli ez, baina, sortzeari ekin zion, izan ere, «antzerkia kultur gai egokia zela euskara erakargarri egiteko ohartu zen, herri handi nahiz txikietan lortzen ari zen arrakasta ikustean» (Dorronsoro, 2004: 18).

Aldi berean, Agirrek, Urretak eta Azpeitiak narratibara salto egin, eta denera ipuintxo bi itzuli zituzten. Batetik, Agirrek eta Urretak elkarrekin euskaratutako *Ilargian ere euskeraz* (1967) ipuin biziki aipagarria, merkatuan publiko zabalari zuzendutako abentura eta zientzia fikziozko liburu askorik argitaratzen ez zen garaian kaleratu zelako. Lehen gizakia ilargira iritsi baino bi urte lehenago argitaratu zen «[l]iburu bitxia izan zen hura alde askotatik begiratuta» (Azurmendi, 2005: 14). Horrez gain, mintzagai ditugun itzulpenetatik jatorrizko gaztelaniazko ipuina eta euskarazko itzulpena urte berean kaleratutako bakarra

da honakoa. Josu Zabaletak (1989: 94) Madrilen egin ziren Espainiako Estatuko Hizkuntzen Arteko Literatur Itzulpenari buruzko jardunaldietan hirurogeiko hamarkadan dezente zabalduen joera horren berri eman zuen: «[h]irurogeiko hamarkadan [...] euskal gaiezko gaztelaniazko literaturaren euskarazko itzulpenak ere argitaratzen dira». Bestetik, Azpeitiak haurrentzako kontakizun labur bat ekarri zuen euskarara.

Poesia izan da, azkenik, Azpeitiak, Mujikak eta Urretak itzultzeko aukeratu duten generoa. Azpeitiak hurrei zuzenduriko poema bat izan zuen itzulgai; Mujikak Debari, bere sorlekuari buruzko olerki baten zati bat; eta Urretak, Alice Duer Miller idazle estatubatuarren, eta emakumezkoaren boto-eskubidearen defendatzaile sutsuaren poema luze bat.

Aipatutako itzultzaileek orotara argitaratutako hamar itzulpenetatik zortzi gaztelaniatik euskaratu ziren, frantsesetik eta ingelesetik bakarra. Zentzuzkoa da lanen gehiengoa gaztelaniatik euskaratu izana, itzultzaile guztiak Hego Euskal Herrikoak izanik, eta egoera soziolinguistikoa kontuan harturik, gaztelania delako mugaz honanzkoen hizkuntzarik hurbilekoena. Horri, garai hartan beste erdal hizkuntzak ikastearen ezohikotasuna gehitu behar zaio. Espainiako literatur sistemako autore esanguratsuen lanak ekarri zituzten euskarara (Machado, Zorrilla, Pío Baroja, García Lorca...), horiek irakurtzeko gaztelaniazko testuetara jo beharrean, euskaldunek euren hizkuntzan irakurtzeko aukera izan zezaten.

Aztergai ditugun itzultzaile aitzindarien artean, Azpeitia eta Urreta izan ziren gaztelania ez den beste hizkuntzetatik euskaratu zuten bakarrak. Azpeitiak frantsesetik euskaratu zuen ipuin labur bat, hizkuntza horretan idatzitako irakasleentzako aldizkari bat irakurri ohi zuelako, eta, beraz, frantsesez zekielako. Urretak, ordea, ingelesetik itzuli zuen Alice Duer Miller estatubatuarren poema, Escuela Central de Idiomasen eta Ingalaterran egindako hainbat hilabetetako egonaldiaren fruitu baitzekien hizkuntza hura.

Baina, Azpeitiaz eta Urretaz gain, Agirrek ere idazle espainolez bestalde beste erdara batzuetako autoreen testuak euskarara ekarri zituen. Tagore bengalar idazlearen *Amal* (1962) eta argitaratu gabeko Gazzo estatubatuarren *Txapela bete euri* (1966) izan ziren bi testu horiek. Halere, bi arrazoirengatik litekeena da Agirrek gaztelaniazko zubi-hizkuntzatik euskaratu izana: batetik, antzezlan horien gaztelaniazko itzulpenak Agirrerren euskarazkoak baino lehenago atera ziren argitara; bestetik, ikerketa lan hau egin bitartean ez dugu Agirrek euskara eta gaztelaniaz aparte beste hizkuntzarik zekienik topatu.

Argitaratutako hamar itzulpenak paperezko euskarrian argitaratu ziren. Orduko euskal kazetetan hiru: *Egan*, *Euskerazaintza* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan itzulpen bana; eta gainontzekoak, liburu formatuan. Azken horiek, tokian tokiko argitaletxe txikiek argitaratu zituzten: bat Zarauzko Itxaropena argitaletxeak eta bestea herri berdineko Olerti Etxeak, bat Donostiako Izarra argitaletxeak, bi Donostiako Edili argitaletxeak, eta azken biak EIZIEk. Halere, Agirrek euskaratutako hamarnaka antzezlanetatik hiru soilik atera ziren argitara paperean.

Argitalpen garaiak ere zerikusi handia du Euskal Herriko historia sozio-politikoarekin. Francoren diktadurapean euskara esparru publiko guztietatik ezabatu, eta erregimenaren amaierako urteetara arte itxaron beharko dugu aztergai ditugun emakume aitzindarien itzulpenak argitaratzeko. Horrez gain, itzultzaileak hil eta gero argitaratu ziren lan bi: 1989an kaleratutako Azpeitiarena bata (1980an zendu zen), eta 2002an argitaratutako Etxaberena bestea (1993an zendu zen).

Aipatutako guztia kontuan hartuta ondoriozta genezake Mogelen XIX. mendeko aitzindaritzatik XX. mendeko 70eko hamarkadara arte itzultzen aritutako dozena erdi emakumeek ez zutela itzultzaile izatearen kontzientziarik. *Andereño Idazleen I. Batzarrean* hasi ziren emakume idazleak historian lehenengoz haien artean batzen eta talde lanaren beharraz jabetzen. Luzaro itxaron beharko dugu, baina, emakume itzultzaileak euren artean elkartzen hasteko.

Ikerlan honetan itzultzaile gisa kalifikatu ditugun gehienak abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren inguruan batutako idazleak eta irakasleak izan dira, etxean itzultzen jardun ahal izateak emakumeei egotzitako zaintza eta irakaskuntza ahalbidetu diena. Esan genezake, beraz, helburuei dagokienez ez dagoela alde handirik Mogel eta gainontzeko itzultzaileen artean. Aipatutako sei emakumezko aitzindariak plazer hutsagatik eta helburu politikoak bultzatuta egin zituzten itzulpenak. Euskaratutakoagatik dirusaririk jasotzeko esperantzarik gabe, abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren mesedetan, Euskal Herria euskalduntzeko saiakeran euskaratu zituzten zenbait lan: ipuin, poema eta antzerki bidez euskara hedatzea helburutzat hartuta.

Logika horren barruan, itzultzaile izatearen kontzientziarik gabe, eta emakumeen arteko batasunik gabe, haien gustuen arabera, erdi kasualitatez zenbait testu solte euskaratu zituzten sei emakume izan zirela esan genezake. Mogekek euskaltzaletasunak bultzatuta itzuli zuen. Azpeitiak politika jeltzaleak defendatutako euskal irakaskuntzaren mesedetan

egin zituen itzulpenok. Ikastoletan euskarazko material pedagogiko falta zenez, bere itzulpen biak haur eta gazteentzako literaturari eskaini zizkion, garaiko haur-literaturaren hutsunea betetzeko asmoz. Mujikak bitxikeria bat itzuli zuen, gustuko zuen poema bat euskaraz eman. Litekeena da bere interes pertsonalen arabera hautua izatea. Agirrek, Etxabek eta Urretak, ordea, salaketarako genero nagusi zen antzerkia itzultzeko erabakia hartu zuten, Agirrek eta Urretak itzultitako zientzia fikziozko ipuinaz gain, eta azken horrek euskaratutako poemaz gain.

5. BIBLIOGRAFIA

- ALTZIBAR, X. (1982). “Bizenta Antonia Mogelen biaz eta lanaz zenbait argibide”, *Euskera*, XXVII, 457-494. Interneten eskuragarri: <<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/10869.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- ALTZIBAR, X. (1990). *Bizkaierazko idazle klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia. Interneten eskuragarri: <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier_Altzibar_TESI.pdf> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- ALTZIBAR, X. (2008). “Bizenta Mogelen gabon kantak eta 1828ko bertsoak”, in *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 19, 25-104. Interneten eskuragarri: <<http://www.bidebarrieta.com/revista/19/Bizenta-Mogelen-gabon-kantak-eta-1828ko-bertsoak>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- ALVAREZ, A. (2005). “Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian” in *Jakin*, 148, 37-74. Interneten eskuragarri: <<https://www.jakin.eus/show/dd3f4a4f53c87003e61d60c0c55401d4dbec0a0a>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- ARMIARMA. *Euskarari ekarriak*. Interneten eskuragarri: <<https://ekarriak.armiarma.eus/>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- ARMIARMA. *Literatur Aldizkarien Gordailua*. Interneten eskuragarri: <<https://andima.armiarma.eus/>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- ARMIARMA. *Literaturaren Zubitegia*. Interneten eskuragarri: <<https://zubitegia.armiarma.eus/>> [Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 16a]
- ARZELUS, A. (1930). “Andereño idazleok entzun” in *El Día*, 1930-08-07. Interneten eskuragarri: <<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAZokoPrensaWEB/getImageServlet.do?imagen&id={EE4ED2EC-8419-457C-80B3-8A492C3C4734}>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]

- AUZMENDI, L. (2002). *Maria Dolores Agirre*. Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Interneten eskuragarri: <<https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/28%20agirre.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- AUZMENDI, L. eta BIGURI, K. (arg.) (1996). *Itzulpen antologia I*. Donostia: EIZIE. Interneten eskuragarri: <<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/antologia/antologia1>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- AUZMENDI, L. eta BIGURI, K. (arg.) (1998). *Itzulpen antologia II*. Donostia: EIZIE. Interneten eskuragarri: <<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/antologia/antologia2>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- AZPEITIA, J. (1989). “Ontza. La lechuza” in *Euskerazaintza*, 6, 37-41. Interneten eskuragarri: <<https://euskerazaintza.org/PDF/euskerazaintza6.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- AZURMENDI, N. (1987). “Emakume idazleak euskal literaturan” in *Jakin*, 45, 25-36. Interneten eskuragarri: <<https://www.jakin.eus/show/a1878c1004c29563b0a37f3ff7ac8e71dd601bfb>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- AZURMENDI, N. (1997). “Vicenta Antonia Moguel. La primera escritora vasca” in *Emakunde*, 28, 40-41. Interneten eskuragarri: <https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/sen_revista/es_emakunde/adjuntos/revista.emakunde.28.pdf> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- AZURMENDI, N. (2005). *Maritxu Urreta*. Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Interneten eskuragarri: <<https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/41%20URRETA.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- BELDARRAIN, J. (2010). *Alegia klasikoak euskaraz: Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*. EHUKo Doktorego Tesia. Argitaratu gabe. Interneten eskuragarri: <<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/12307/BELDARRAIN%20AGUIRRE.pdf?sequence=1&isAllowed=y>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]

- BIDADOR, J. (1996). “Julene Azpeitia euskal maistra” in *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-06-07. Interneten eskuragarri: <<https://zubitegia.armiarma.eus/?p=bid-28>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- DORRONSORO, L. (2004). *Tene Mujika*. Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Interneten eskuragarri: <<https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/35%20MUXIKA.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- EIZIE. *Nor da Nor*. Interneten eskuragarri: <<http://nordanor.eus/>> [Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 16a]
- ETXABE, M. (1930). *Zorionaren iturria gizonak non du?*, 1930-04-27. Donostia. Interneten eskuragarri: <<https://diadelasescritoras.bne.es/maria-etxabe/>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- GURRUTXAGA, A. (2018). “Inor Ez andreak” in *Berria*, 2018-05-27. Interneten eskuragarri: <<https://www.berria.eus/paperekoa/1972/040/001/2018-05-27/inor-ez-andreak.htm>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- IBARLUZEA, M. (2018). “Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan” in *Senez*, 49, 213-226. Interneten eskuragarri: <<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/2018/itzulpengintzaren-errepresentazioak-euskal-literatura-garaikidean-eremuaren-autonomizazioa-literatur-historiografiak-eta-itzultzaileak-fikzioan>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- IRURETA, O. (2018). “Irakastea baino ikastea nahiago zuen bizizalea” in *Argia*. Interneten eskuragarri: <<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2610/marixu-urreta-zulaika-1915-2018>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- KALTZAKORTA, X. (1992). *Bizenta Mogel*. Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Interneten eskuragarri: <<https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/bizenta.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- LEKUONA, J. M. (1998). “Itzultzaile emerituak” in *Itzulpen Antologia II*. Donostia: EIZIE. Interneten eskuragarri:

- <<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/antologia/antologia2/lekuona.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- MINTEGI, L. (1987). *Julene Azpeitia*. Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Interneten eskuragarri: <<https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/azpe.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- MOGEL, B. (1804). *Ipui onac, ceintzuetan arquiteuco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco*. Donostia: Antonio Undiano liburugullearen echean. Interneten eskuragarri: <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/25150>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- OLAZIREGI, M. J. (2003). “Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa”, in *IKER*, 14, 203-221. Interneten eskuragarri: <<http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54862.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- ONAINDIA, S. (1990). *Euskal literatura VI : geure mendean*. Bilbo: Etor. 113-114. Interneten eskuragarri: <<http://aitasanti.ametx.net/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1974/Euskal%20Literatura%20VI.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- SAN MARTÍN, J. (1961). “Itzaurrea” in *Amandriaren altzoan*, J. Azpeitia. Zarautz: Itxaropena. Interneten eskuragarri: <<https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/AzpeitiaJAmandria.htm>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- UNZALU, G. (2019). “Miren Etxabe Aldai: ‘Lau Uxo’-ren hegaldi etena” in *Urola Kostako Hitza*, 2019-03-05. Interneten eskuragarri: <<https://urolakosta.hitza.eus/generoak/iritziak/miren-etxabe-aldai-lau-uxo-ren-hegaldi-etena/>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]
- URKIZU, P. (2003). “Maria Dolores Agirre eta Euskal Antzertia” in *Egan*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte: Donostia. 3/4, 27-54. Interneten eskuragarri: <<http://www.liburuklik.euskadi.eus/applet/libros/JPG/fs02/RSBAP->

HEM_0001/2003_06_01/RSBAP-HEM_0001-2003_06_01.pdf> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]

URUBURU, L. (1997). *Emakume Abertzale Batza*. Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Interneten eskuragarri: <<https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/emabatza.pdf>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]

VILLASANTE, L. (1979). *Historia de la literatura vasca*. 2. argitalpena. Oñati: Aránzazu. [1. argitalpena, 1961]. Interneten eskuragarri: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/villasante/dokumentuak/491.pdf> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]

WHITE, L. (1996). *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century*. Tesia. Reno: University of Nevada.

ZABALETA, J. (1989). “Espainiako Estatuko hizkuntzen arteko literatur itzulpena: Euskara” in *Senez*, 8, 83-100. Interneten eskuragarri: <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19900110/senez_08_1989.pdf> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]

ZIPITRIA, E. (1930). “Ekin ta Jarrai” in *El Día*, 1930-09-09. Interneten eskuragarri: <<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAzokoPrensaWEB/getImageServlet.do?imagen&id={C4641BE4-13CA-4B1C-957F-431A2433FCE5}>> [Azken kontsulta: 2020ko ekainaren 4a]